

2017ko martxoaren 3a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1136

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 14koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuz, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Mireia Zarate Aguirre andrea Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Nazioarteko-tzeko aholkulari izendatzea (5294 kodea; 1. dotazioa; zuzendari-maila).

Bigarrena.– Egin beharreko zereginak aholkularitzako lanpostu baten berezkoak eta atxikita dagoen alorreko berariazkoak izango dira.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, honako artikulua hauetan jasotako aurreikuspenen bat edo guztiak aplikatu dakizkion: Goi-kargudunen lantsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1, 5.1 edo 5.2 artikulua.

Laugarrena.– Izendapen honek 2017ko urtarrilaren 14tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta geratuko da izendapena egiten duen organoaren titularrak kargua uzten duenean. Nolanahi ere, edozein momentutan ezeztatu daiteke izendapen hori.

Bosgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 14a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.